

**EUSKAL  
AUTONOMIA  
ERKIDEGOAREN  
AURREKONTU  
OROKORRAK**

PRESUPUESTOS  
GENERALES  
DE LA COMUNIDAD  
AUTÓNOMA  
DE EUSKADI

**ENTE, SOZIETATE ETA  
FUNDAZIO PUBLIKOAK**

9

ENTES, SOCIEDADES  
Y FUNDACIONES PÚBLICAS

**EAE-KO ENPRESEN ETA FUNDAZIOEN  
SEKTORE PUBLIKOAK**

• SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL  
Y FUNDACIONAL DE LA CAE

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA FINANTZA  
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y FINANZAS



2015

---

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS  
GENERALES  
DE LA COMUNIDAD  
AUTÓNOMA  
DE EUSKADI

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA  
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y FINANZAS

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General  
del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia / Edición: 1.a 2014ko abendua / diciembre 2014

Ale-kopurua / Tirada: 16 ale / 16 ejemplares

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco  
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento de Hacienda y Finanzas

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa / Imprime: Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua / Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

L.G. / D. L.: BI 900-1983

## EAEko Enpresen eta Fundazioen Sektore Publikoa *Sector Público Empresarial y Fundacional de la CAE*

9 Alea  
Tomo 9

### Aurkibidea / Índice :

I.	LEHENDAKARITZA.....	1
-	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia .....	3
	<i>Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo</i>	
II.	EKONOMIAREN GARAPENA ETA LEHIAKORTASUNA (10 eta 11 liburukietan).....	27
	<i>DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD (En tomos 10 y 11)</i>	
III.	ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK.....	29
	<i>EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES</i>	
-	Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, S.A. ....	31
	<i>Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.</i>	
-	Alokabide, S.A. ....	59
IV.	OGASUNA ETA FINANTZAK .....	79
	<i>HACIENDA Y FINANZAS</i>	
-	Finantzen Euskal Institutua .....	81
	<i>Instituto Vasco de Finanzas</i>	
-	Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea-EJIE, S.A.....	99
	<i>Sociedad Informática del Gobierno Vasco-EJIE, S.A.</i>	
-	Itelazpi, S.A. ....	121
V.	HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA .....	139
	<i>EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA</i>	
-	Unibasq.....	141
-	Fundación MUSIKENE Fundazioa.....	163
-	Euskal Irrati Telebista Taldea.....	179
	<i>Grupo Euskal Irrati Telebista</i>	
-	Euskal Irrati Telebista .....	181
-	Euskal Telebista, S.A. ....	208
	<i>Televisión Vasca, S.A.</i>	
-	Eusko Irratia, S.A.....	235
	<i>Riodifusión Vasca, S.A.</i>	
-	Gasteiz Irratia, S.A.....	257
	<i>Radio Vitoria, S.A.</i>	
-	Eitbnet, S.A. ....	277
-	Aurrekontu Bateratuak. Euskal Irrati Telebista Taldea .....	299
	<i>Presupuestos Consolidados. Grupo Euskal Irrati Telebista</i>	
-	Etxepare Euskal Institutua.....	305
-	Euskadiko Orkestra, S.A. ....	327
	<i>Orquesta de Euskadi, S.A.</i>	
-	Fundación EHko GAZTE ORKESTRA Fundazioa .....	346
-	Fundación EUSKADI KIROLA Fundazioa .....	359

VI.	OSASUNA (12 liburukian).....	377
	<i>SALUD (En tomo 12)</i>	
VII.	INGURUMENA ETA LURRALDE POLITIKA .....	379
	<i>MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL</i>	
-	Uraren Euskal Agentzia .....	381
	<i>Agencia Vasca del Agua</i>	
-	IHOBE, S.A. Ingurumen Iharduketarako Sozietate Publikoa .....	403
	<i>Sociedad Pública de Gestión Ambiental, IHOBE, S.A.</i>	
-	Euskadiko Kirol Portua, S.A. ....	427
-	Zumaiako Kirol Portua, S.A. ....	449
-	Euskotren Taldea.....	465
	<i>Grupo Euskotren</i>	
-	Eusko Trenbideak, S.A. ....	467
	<i>Ferrocarriles Vascos, S.A.</i>	
-	Euskotren Participaciones, S.A. ....	493
-	Aurrekontu Bateratuak. Euskotren Taldea .....	507
	<i>Presupuestos Consolidados. Grupo Euskotren</i>	
-	Euskal Trenbide Sarea .....	515
	<i>Red Ferroviaria Vasca</i>	
-	Fundación MUSEO VASCO FERROCARRIL Fundazioa.....	539
VIII.	Aurrekontu Bateratuak. Enpresen eta Fundazioen Sektore Publikoa .....	555
	<i>Presupuestos Consolidados. Sector Público Empresarial y Fundacional</i>	
IX.	Ente, sozietate eta fundazio publikoen gerorako konpromisoak.....	567
	<i>Compromisos futuros de entes, sociedades y fundaciones públicas</i>	



I. LEHENDAKARITZA







GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

**Kapital- eta ustiapen-aurrekontuak**  
***Presupuestos de capital y explotación***

**Informazio gehigarria**  
***Información adicional***

- Memoria
- Aurreikusitako urteko kontuak – Cuentas anuales previsionales
- Aurrekontu administratiboa – Presupuesto administrativo



Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo

USTIAPEN AURREKONTUA  
PRESUPUESTO DE EXPLOTACION

Euro / Euros

GASTUAK GASTOS		PARTIDA PARTIDA	KONTUA CUENTA	EPIGRAFA EPIGRAFE
<b>I. PERTSONAL-GASTUAK GASTOS DE PERSONAL</b>				<b>1.193.103</b>
1.	SOLDATAK, LANSARIAK ETA ANTZEKOAK SUELDOS, SALARIOS Y ASIMILADOS			926.988
640	<b>Soldatak Sueldos y salarios</b>		<b>926.988</b>	
6401	Zuzendaritza-taldekideen ordainsariak (130/99 Dekretua) Retribuciones de cargos directivos (Decreto 130/99)		67.087	
6402	Funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak Retribuciones de funcionarios y personal estatutario		205.396	
6404	Lan-legepeko langile finkoen ordainsariak Retribuciones de personal laboral fijo		384.042	
6405	Lan-legepeko langileak ordezkatzen dituzten ordainsariak Retribuciones de personal que sustituye a personal laboral		163.202	
6407	Aldi baterako lan-legepeko langileen ordainsariak Retribuciones de personal laboral temporal		107.261	
1	Behin-behineko kontratazioak: 3. Contrataciones temporales: 3.	107.261		
2.	KARGA SOZIALAK ETA BESTE BATZUK CARGAS SOCIALES Y OTROS			266.115
642	<b>Enpresaren kargurako Gizarte Segurantz Seguridad Social a cargo de la empresa</b>		<b>266.115</b>	
<b>II. FUNTZIONAMENDU-GASTUAK GASTOS DE FUNCIONAMIENTO</b>				<b>406.897</b>
1.	HORNIKUNTZAK APROVISIONAMIENTOS			90.000
607	<b>Beste enpresa edo profesional batzuek egindako lanak Trabajos y servicios realizados por otras empresas o profesionales</b>		<b>90.000</b>	
6071	Profesionalak eta bestelako enpresek emandako laguntza-zerbitzuak Servicios asistenciales prestados por profesionales y otras empresas		90.000	
2.	KANPOKO ZERBITZUAK SERVICIOS EXTERIORES			316.897
621	<b>Errentamenduak eta kanonak Arrendamientos y cánones</b>		<b>5.000</b>	
6218	Bestelako ibilgetu materialaren errentamenduak Arrendamientos de otro inmovilizado material		5.000	
622	<b>Konponketak eta kontserbazioa Reparaciones y conservación</b>		<b>10.000</b>	
6222	Azpiegiturak Infraestructuras		10.000	
627	<b>Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak Publicidad, propaganda y relaciones públicas</b>		<b>20.000</b>	
6270	Publizitatea eta propaganda Publicidad y propaganda		20.000	
628	<b>Hornigaiak Suministros</b>		<b>5.000</b>	
6289	Bestelako hornidurak Otros suministros		5.000	
629	<b>Bestelako zerbitzuak Otros servicios</b>		<b>276.897</b>	
6290	Lokomozioa eta egonaldi-gastuak Locomoción y gastos de estancia		81.897	
6291	Bulegoko materiala Material de oficina		10.000	
6294	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak Prensa, revistas, libros y otras publicaciones		5.000	

GASTUAK GASTOS		PARTIDA PARTIDA	KONTUA CUENTA	EPIGRAFEA EPIGRAFE
6299	Bestelako hainbat zerbitzu <i>Otros servicios diversos</i>		180.000	
1	Bestelako hainbat zerbitzu. <i>Otros servicios diversos.</i>	180.000		
<b>IV. ENTITATEAK EMANGO DITUEN DIRU-LAGUNTZAK ETA EGINGO DITUEN TRANSFERENTZIAK SUBVENCIONES A CONCEDER Y TRANSFERENCIAS A REALIZAR POR LA ENTIDAD</b>				<b>38.426.830</b>
<b>652</b>	<b>Ustiapenerako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak Subvenciones, donaciones y legados a la explotación</b>		<b>8.254.349</b>	
6521	Ustiapenerako bestelako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak <i>Otras subvenciones, donaciones y legados a la explotación</i>		8.254.349	
1	Lankidetzaren arloko profesionalen espezializaziorako beka 2014. <i>Becas de especialización de profesionales en el área de cooperación 2014.</i>	88.000		
.	Lehendik agindutako gastua. <i>Gasto comprometido en años anteriores.</i>			
2	Euskal lankideentzako laguntzak 2014. <i>Ayudas a personas vascas cooperantes 2014.</i>	115.000		
.	Aurrerako konpromisoak / Compromisos futuros 2016 : 60 M			
3	Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeentzako laguntzen luzapena 2013. <i>Prorroga de ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas 2013.</i>	128.000		
4	2014 hitzarmenak. <i>Convenios 2014.</i>	715.251		
.	Aurrerako konpromisoak / Compromisos futuros 2016 : 715 M			
5	2015erako Garapenerako Lankidetzarako Laguntzak. <i>Ayudas a la Cooperación para el Desarrollo 2015.</i>	2.429.058		
.	Aurrerako konpromisoak / Compromisos futuros 2016 : 1.007 M ; 2017 : 672 M			
6	2013ko Proiektuetarako laguntzak. <i>Ayudas a Proyectos 2013.</i>	526.240		
7	Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko 2014rako laguntzak. <i>Ayudas para promover procesos de cambio organizacional pro-equidad de género 2014.</i>	52.800		
8	2014ko Ekintza humanitarioetarako estrategia markoak. <i>Estrategias-marco de acción humanitaria 2014.</i>	1.000.000		
9	2014ko Proiektuetarako laguntzak. <i>Ayudas a Proyectos 2014.</i>	3.200.000		
<b>653</b>	<b>Kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak Subvenciones, donaciones y legados de capital</b>		<b>30.172.481</b>	
6531	Kapitaleko bestelako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak <i>Otras subvenciones, donaciones y legados de capital</i>		30.172.481	
1	2011ko programen laguntzak. <i>Ayudas a Programas 2011.</i>	1.640.000		
.	Lehendik agindutako gastua. <i>Gasto comprometido en años anteriores.</i>			
2	2012ko Programetarako laguntzak. <i>Ayudas a programas 2012.</i>	2.776.559		
.	Lehendik agindutako gastua. <i>Gasto comprometido en años anteriores.</i>			
.	Aurrerako konpromisoak / Compromisos futuros 2016 : 1.640 M			
3	2012ko proiektuetarako laguntzak. <i>Ayudas a Proyectos 2012.</i>	2.942.162		
4	2014rako deialdiak: programak eta proiektuak. <i>Convocatorias 2014: programas y proyectos.</i>	10.200.000		
.	Aurrerako konpromisoak / Compromisos futuros 2016 : 14.200 M ; 2017 : 2.000 M			
5	2015erako Garapenerako Lankidetzarako Laguntzak. <i>Ayudas a la Cooperación para el Desarrollo 2015.</i>	7.740.000		

Euro / Euros

GASTUAK GASTOS		PARTIDA PARTIDA	KONTUA CUENTA	EPIGRAFEA EPIGRAFE
.	Aurrerako konpromisoak / Compromisos futuros 2016 : 9.900 M ; 2017 : 9.540 M ; 2018 : 1.420 M			
6	2013ko Proiektuetarako laguntzak. <i>Ayudas a Proyectos 2013.</i>	4.873.760		
.	Lehendik agindutako gastua. <i>Gasto comprometido en años anteriores.</i>			
<b>GASTUAK GUZTIRA TOTAL GASTOS</b>				<b>40.026.830</b>

Euro / Euros

DIRU-SARRERAK INGRESOS		PARTIDA PARTIDA	KONTUA CUENTA	EPIGRAFEA EPIGRAFE
<b>IV.</b>	<b>USTIAPENENKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE EXPLOTACIÓN</b>			<b>40.026.830</b>
<b>740</b>	<b>Ustiapenerako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak Subvenciones, donaciones y legados a la explotación</b>		<b>40.026.830</b>	
7400	Ustiapenerako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak. EAEko sektore publikoa <i>Subvenciones, donaciones y legados a la explotación. Sector Público de la CAE</i>		9.854.349	
1	Ustiapen gastuak finantzatzeko EAEtik, Lehendakaritzatik, jasoko direnak. <i>A recibir de la CAE, de Lehendakaritza, para financiar gastos de explotación.</i>	9.854.349		
7401	Bestelako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak. EAEko sektore publikoa <i>Otras subvenciones, donaciones y legados. Sector Público de la CAE</i>		30.172.481	
1	Kapital diru-laguntzak finantzatzeko EAEtik, Lehendakaritzatik, jasoko direnak. <i>A recibir de la CAE, de Lehendakaritza, para financiar subvenciones de capital.</i>	30.172.481		
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA TOTAL INGRESOS</b>				<b>40.026.830</b>





**GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA**

AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

## **1. ERAKUNDEAREN JARDUERA OROKORRAK**

Otsailaren 22ko 1/2007 Legeari esker funtsezko arau-esparru bat ezarri da Euskadin Garapen Lankidetzarako politika publikoa antolatu eta indartzeko. Ekainaren 19ko 5/2008 Legearen bitartez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa sortu eta arautu da, garapenerako politikaren plangintza prestatzeaz arduratuko den erakunde publiko izan dadin, baita politika hori koordinatu, kudeatu eta egikaritzeaz ardura dadin ere, pobrezia aurka borrokatzeko eta garapen-bidean dauden herrialdeetan giza garapen iraunkorra sustatzeko. Martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren bidez, agentziaren antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua onartu zen, eta azaroaren 23ko 310/2010 Dekretuaren bidez, berriz, jarduerak 2011ko urtarrilaren 1ean hasia erabaki zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari dagozkion eskumenen eremuan garapenerako lankidetzaren arloko erakunde arduraduna izaki, Agentziak ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 3.2 artikuluan zehaztutako eginkizunak betetzen ditu, aipatutako 1/2007 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrekin bat etorritik. Hori guztia, Milurtekoaren Garapen Helburuekin bat etorritik eta "elkartasun eskuzabalaren" printzipioari jarraiki, beste administrazio batzuei dagozkien eskumenak guztiz errespetatuz eta lankidetzaren agenteen eskubide eta interesen alde eginez.

Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean ezarritako kontzeptuzko esparruan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzaren politika koordinatzea, kudeatzea eta egikaritzea eta plangintza lantzea du helburu orokortzat, eskumeneko Saila den neurrian Gobernuaren Lehendakariak une honetan ezarritako jarraibideei jarraiki.

## **1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD**

La Ley 1/2007, de 22 de febrero, supone un marco normativo esencial para el ordenamiento y fortalecimiento de la política pública de Cooperación para el Desarrollo en Euskadi. Por Ley 5/2008, de 19 de Junio, se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo como Ente Público de Derecho privado, como el órgano de gestión encargado de elaborar la planificación de la política en la materia, así como la coordinación, gestión y ejecución de la misma en orden de contribuir a luchar contra la pobreza y promover el desarrollo humano sostenible en los países empobrecidos. Por Decreto 95/2010, de 23 de marzo, se aprueba su reglamento de organización y funcionamiento y por Decreto 310/2010, de 23 de noviembre, se determinó el inicio de actividades en fecha 1 de enero de 2011.

La Agencia, como entidad responsable en materia de cooperación para el desarrollo en el ámbito de las competencias que corresponden a la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ejerce las funciones indicadas en el artículo 3.2 de la Ley 5/2008, de 19 de junio, de acuerdo con los principios generales señalados en el artículo 3 de la Ley 1/2007, citada. Todo ello en coherencia con los Objetivos de Desarrollo del Milenio y de acuerdo con el principio de "solidaridad desinteresada", así como con pleno respeto por las competencias que corresponden a otras administraciones y por los derechos e intereses de los y las agentes de cooperación.

En el ámbito conceptual establecido por la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, conforme a lo previsto en el artículo 3.1 de la Ley 5/2008, de 19 de junio, tiene como objetivo general elaborar la planificación y coordinar, gestionar y ejecutar la política de cooperación para el desarrollo del Gobierno Vasco, siguiendo las directrices establecidas, en estos momentos, por la Presidencia del Gobierno como Departamento competente en la materia.

Eginkizun horiek garatzeko, Agentziak zenbait gobernu-organo ditu —Kontseilu Errektorea, Lehendakaritza, Lehendakariordetza eta Zuzendaritza—, baita kudeaketa-organoak —Ekonomia, Aurrekontua eta Langileak Kudeatzeko Zerbitzua, Zerbitzu Juridikoa, Koordinazio Estrategikoaren Zerbitzua eta Koordinazio Teknikoaren Zerbitzua— eta koordinazio-organoak —Zuzendaritza Batzordea— ere.

Une hauetan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko gisa, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariari atxikita dago Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez.

Para el desarrollo de esas funciones, la Agencia dispone de órganos de gobierno —el Consejo Rector, la Presidencia, la Vicepresidencia y la Dirección—, órganos de gestión —Servicio de Gestión Económica, Presupuestaria y de Personal, Servicio Jurídico, Servicio de Coordinación Estratégica y Servicio de Coordinación Técnica— y órganos de coordinación —Comité de Dirección—.

En estos momentos, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo está adscrita, en su calidad de Ente Público de Derecho Privado, a la Presidencia del Gobierno, a través de la Secretaría General de Acción Exterior.

PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN	%
EAEko Administrazioa Administración de la CAE	100
GUZTIRA TOTAL	100

## 2. 2014AN BURUTUTAKO EGITE NAGUSIAK

## 2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2014

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Agentziak 2014rako aurrekontu-aurreikuspenei eta haiek egikaritzeari buruz zeuzkan helburu estrategikoak betetzearen ikuspuntutik, egindako ekintza hauek azpimarra ditzakegu:</p> <p>a) Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legean jasotako aurreikuspenen garapenera eta plangintza-zereginen dagokienez adierazi da Eusko Legebiltzarrak Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Orientabide Nagusiak onartu zituela.</p> <p>b) Eusko Jaurlaritzak Lau Urteko (2014-2017) Gidaplana onartu du. Onartutako proiektuaren diseinua eta kudeaketa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren eremuan garatu den eta parte-hartze handia izan duen prozesu baten emaitza izan da.</p> <p>c) 2014. urteko Garapenerako Lankidetzaren Urteko Plana onartu da.</p>		<p>Desde el punto de vista del cumplimiento de los objetivos estratégicos de la Agencia en relación con las previsiones presupuestarias para el ejercicio 2014 y su ejecución, podemos reseñar las siguientes realizaciones:</p> <p>a) En lo que se refiere al desarrollo de las previsiones de la Ley 1/2007, de Cooperación para el Desarrollo y a las labores de planificación, se indica que el Parlamento Vasco aprobó las Orientaciones Generales de la Planificación Estratégica Plurianual.</p> <p>b) El Gobierno Vasco ha aprobado el Plan Director Cuatrienal 2014-2017. El diseño y la gestión del proyecto aprobado ha sido el resultado de un proceso altamente participativo en el ámbito del Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo.</p> <p>c) Se ha aprobado el Plan Anual de Cooperación para el Desarrollo para 2014.</p>



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>d) Lankidetzeta-tresnen 2014ko kudeaketari dagokionez (aurrekontu-baliabideen eremuan) honako hauei dagozkien prozedurak deitu eta ebatzi dira: larrialdiko eta ekintza humanitarioko laguntzak, ekintza humanitarioko estrategiak, genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko laguntzak, programak, garapenerako lankidetzako proiektuak, lankidetzeta-eremuko espezializazio-bekak, borondatezko euskal lankideentzako laguntzak, nazioarteko erakundeentzako eta haiei lotutako pertsona juridikoentzako laguntzak, betiere haien garapen-proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei beka emateko. Era berean, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza ekonomikoari esker aurretiko laguntzak izapidetu dira.</p> <p>e) 2014an lankidetzeta zuzenarekin lotutako jarduerari berriz ekin zaio, hain zuzen ere, otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren —proiektuetarako laguntzak arautzen dituenaren— xedapen gehigarri bakarrean aurreikusitakoaren babesean hitzarmenak izenpetuz. Aldebiko eremu honetan, Osasun Sailarekin, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin hainbat esparru-akordio eta/edo hitzarmen izenpetu dira lankidetzeta-ekintzei ekiteko.</p> <p>f) EAeko garapen-politikak aztertze beharrezkoak diren lanei ekin zaie.</p>		<p>d) En lo que se refiere a la gestión de los instrumentos de cooperación, en 2014, y en el ámbito de las disponibilidades presupuestarias, se han convocado y resuelto los procedimientos correspondientes a las Ayudas de emergencia y acción humanitaria, Estrategias de acción humanitaria, Ayudas para promover procesos de cambio organizacional pro-equidad de género, Programas, Proyectos de cooperación para el desarrollo, Becas de especialización en el ámbito de la cooperación, Ayudas a personas cooperantes vascas y Ayudas a organismos internacionales y a personas jurídicas a ellos vinculadas para becar a las personas cooperantes voluntarias que participen en sus proyectos de desarrollo. Asimismo, se han tramitado las prórrogas de las ayudas precedentes, con el apoyo económico del Departamento de Empleo y Políticas Sociales.</p> <p>e) En 2014 se retoma la actividad relacionada con la cooperación directa habiéndose suscrito convenios al amparo de lo previsto en la disposición adicional única del Decreto 34/2007, de 27 de febrero, por el que se regulan las ayudas a proyectos. En este ámbito bilateral, se han suscrito sendos acuerdos marcos y/o convenios con el Departamento de Salud, con el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura y la Agencia Vasca del Agua para el acometimiento de acciones de cooperación.</p> <p>f) Se han iniciado los trabajos necesarios para un análisis de las políticas de desarrollo en la CAE .</p>
<p>2014ko ekitaldiko aurrekontua betetzeari dagokionez, honako hau aipatu behar dugu, helburu, ekintza eta adierazleei jarraiki:</p>		<p>En lo que se refiere a la plasmación del cumplimiento presupuestario del ejercicio 2014, concretado en objetivos, acciones e indicadores, referimos lo siguiente:</p>
<p><b>1. GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO EUSKAL LEGEA GARATZEA</b></p> <p>1.1. 2014-2017 aldirako Lau Urteko Gida Plana landu eta onartzea. 1</p> <p>1.2. 2014rako Garapenerako Lankidetzako Urteko Plana lantzea eta onartzea. 1</p> <p>1.3. “Genero-ekitatearen aldeko” tresna ebaluatzea. 1</p> <p><b>2. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO TRESNAK KUDEATZEA</b></p> <p>2.1. Garapenerako lankidetzako tresnen deialdia egitea. 7</p> <p>2.2. Lekuan bertako bisitaldiak, esku-hartzeak nola egikaritzen ari dien jarraitzeak. 10</p>		<p><b>1. DESARROLLAR LA LEY VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO</b></p> <p>1.1. Elaboración y aprobación del Plan Director Cuatrienal 2014-2017.</p> <p>1.2. Elaboración y aprobación del Plan anual de Cooperación para el Desarrollo para 2014.</p> <p>1.3. Evaluación del instrumento “por-equidad de género”.</p> <p><b>2. GESTIÓN DE LOS INSTRUMENTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO</b></p> <p>2.1. Convocatoria de los instrumentos de Cooperación.</p> <p>2.2. Visitas a terreno para el seguimiento de la ejecución de las intervenciones.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>3. LANGILEEN PRESTAKUNTZA</b></p> <p>3.1. Agentziari atxikitako langileen prestakuntza-premia espezifikoaren diagnostikoa eta identifikazioa.</p> <p><b>4. GARAPENERAKO LANKIDETZAREKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA ZABALTZEA</b></p> <p>4.1. Agentziaren 2013ko urteko memoria onartzea eta zabaltzea.</p> <p>4.2. Egindako jardunaldiei buruzko memorien diseinua, maketazioa eta edizio digitala.</p> <p><b>5. AGENTZIAKO GENERO UNITATEAREN FINKATZE PROZESUEI LAGUNTZEA</b></p> <p>5.1. Generoari buruzko ekitaldi bat prestatzea sektoreko ekitaldi batekin lotuta, eta GGKEei zuzenduta.</p> <p><b>6. GIZARTEAREN ETA ERAKUNDEEN PARTE-HARTZEA</b></p> <p>6.1. Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen eginkizunak garatzen laguntzea, batzorde horren ohiko eta ezohiko bilkurak eta lantaldeak deituz.</p> <p>6.2. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak garatzen laguntzea, kontseilu horren ohiko eta ezohiko bilkurak deituz.</p> <p>6.3. Autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko aholku- eta lan-eremuetan parte hartzea.</p> <p><b>7. ZERBITZU JURIDIKOA</b></p> <p>7.1. Antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduan ezarritako erantzukizun orokorrak betetzea.</p> <p><b>8. EKONOMIAREN, AURREKONTUAREN ETA LANGILEEN KUDEAKETA</b></p>	<p>1</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>2</p> <p>4</p> <p>9</p>	<p><b>3. FORMACIÓN DE PERSONAL</b></p> <p>3.1. Diagnóstico e identificación de las necesidades específicas de formación del personal adscrito a la Agencia.</p> <p><b>4. DIFUNDIR LA INFORMACIÓN EN TORNO A LA COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO</b></p> <p>4.1. Aprobar y difundir la Memoria anual de la Agencia 2013.</p> <p>4.2. Diseño de memorias correspondiente a jornadas realizadas.</p> <p><b>5. PROPICIAR PROCESOS DE CONSOLIDACIÓN DE UNIDAD DE GÉNERO EN LA AGENCIA</b></p> <p>5.1. Preparación de una jornada de género en relación con alguna sectorial, dirigida a las ONGD.</p> <p><b>6. PARTICIPACIÓN SOCIAL E INSTITUCIONAL</b></p> <p>6.1. Propiciar el desarrollo de las funciones de la Comisión Interinstitucional de Cooperación para el Desarrollo, a través de la convocatoria de sus sesiones, ordinarias y extraordinarias y de sus grupos de trabajo.</p> <p>6.2. Propiciar el desarrollo de las funciones del Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo, a través de la convocatoria de sus sesiones, ordinarias y extraordinarias.</p> <p>6.3. Participación en espacios consultivos y de trabajo a nivel autonómico, estatal e internacional.</p> <p><b>7. SERVICIO JURÍDICO</b></p> <p>7.1. Ejecución de las responsabilidades genéricas establecidas en el Reglamento de Organización y Funcionamiento.</p> <p><b>8. GESTIÓN ECONÓMICA, PRESUPUESTARIA Y DE PERSONAL</b></p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
8.1. Agentziaren 2013ko urteko kontuen proposamena lantzea, Kontseilu Errektoreak onar ditzan.	1	8.1. Elaboración de la propuesta de cuentas anuales de la Agencia, correspondientes a 2013, para su aprobación por el Consejo Rector.
8.2. Agentziaren 2015erako aurrekontu-aurreproiektua lantzea, Kontseilu Errektoreak onar dezan.	1	8.2. Elaboración del Anteproyecto de Presupuestos de la Agencia para 2015 para su aprobación por el Consejo Rector.
8.3. Hitzarmen edo kontratu bidez, Agentziaren premia informatikoen estaldura sustatzea eta kudeatzea.	1	8.3. Promover y Gestionar, a través de convenio o contrato la cobertura de las necesidades de la Agencia, desde el punto de vista informático.

### 3. 2015ERAKO HELBURU OROKORRAK ETA BERAUEN ZENBATEKOA

### 3. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2015 Y SU CUANTIFICACIÓN

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>3.1. GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO EUSKAL LEGEAREN AURREIKUSPENAK GARATZEA</b></p> <p>Lanean hasi zenez geroztik bosgarren urtea bete duen honetan, Agentziak ezinbesteko helburu orokor bat ezarri du etorkizunari begira, hain zuzen ere Lankidetzari buruzko Legea garatzen jarraitzea, batetik, erregelamenduaren ikuspegitik, eta, bestetik, plangintzaren, kudeaketaren eta ebaluazioaren eremuan bete beharrekoak betez.</p> <p>Erregelamendu-garapenaren ikuspegitik begiratuta, Agentziak Lankidetzari Agenteen Erregistroa arautuko duen Dekretuaren behin betiko onarpenerako beharrezkoak diren ekintzak bultzatuko ditu. Dekretu horren izapideak 2014an hasi dira eta ondoren, lankidetzari-tresnen berrikuspenarekin jarraituko da, betiere egokitzeko premia handiena dutela balioesten diren tresnei lehentasuna emanez. Ahal den neurrian, lankidetzari-tresna batzuen ebaluazioak egingo dira, haiek berrikusten hasita sustatzeko.</p> <p>Plangintzari dagokionez, honako helburu hauek bete nahi ditu Agentziak, ezinbestean:</p> <p>a) 2015eko ekitaldiko Garapenerako Lankidetzako Urteko Plana lantzea eta onartzea.</p> <p>b) Ebaluazio Plan Orokorra lantzea eta onartzea.</p> <p>c) Komunikazio-plana onartzea.</p>		<p><b>3.1. DESARROLLAR LAS PREVISIONES DE LA LEY VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO</b></p> <p>En su quinto año de funcionamiento, la Agencia se plantea como objetivo general, de carácter ineludible, continuar con el desarrollo de la Ley de Cooperación, tanto desde la perspectiva del propiamente reglamentario, como desde el del cumplimiento de sus mandatos en el ámbito de la planificación, de la gestión y de la evaluación.</p> <p>Desde la perspectiva del desarrollo reglamentario, la Agencia impulsará las acciones necesarias para la aprobación definitiva de un Decreto que regule el Registro de Agentes de Cooperación, cuyos trámites han comenzado en 2014. Se continuará con la revisión de los instrumentos de cooperación dando preferencia a la de aquellos cuya necesidad de adaptación se valore como más perentoria. Se efectuarán, en la medida de lo posible, las evaluaciones de algunos instrumentos de cooperación, con el objeto de promover el inicio de su revisión.</p> <p>En lo que a la planificación se refiere, los objetivos cuyo alcance se entiende ineludible son:</p> <p>a) Elaboración y aprobación del Plan anual de Cooperación para el Desarrollo, correspondiente al ejercicio 2015.</p> <p>b) Elaboración y aprobación de un Plan General de Evaluación.</p> <p>c) Aprobación de un plan de Comunicación.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Era berean, Lau Urteko (2014-2017) Gidaplana onartu ondoren, gidaplan hori betetzeko beharrezkoak diren ekintzak inplementatu behar dira.</p> <p><b>3.2. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO TRESNAK KUDEATZEA</b></p> <p>Garapenerako lankidetzaren eduki-araubidea otsailaren 22ko 1/2007 Legearen aurreikuspenetan oinarritzen da, eta garapenerako lankidetzak, funtsean, zenbait Dekretutan aurreikusitako lankidetzak-tresnen bitartez abiarazten da. Bereziki, proposamenek eta proposamen-egileek helburu jakin bat lortzeko beharrezko laguntzak eskuratzeko bete beharriko betekizunak, helburuak eta mekanismoak ezartzen dituzte Dekretu horietako aurreikuspenek. Tresnak abian jartzeko, deialdi publikoak egiten dira. Aurrekoa aparte utzi gabe, hitzarmenak sinatu ditzake Agentziak, deialdi horietatik kanpo, aipatutako mekanismoak aplikatuz lortu ezin daitezkeen helburuak lortzeko.</p> <p>Lankidetzak-jarduerak finantzatzeko mekanismo horiek —diru-laguntzak ematea prozedura orokorrean, edo bide konbentzionaletik konpromisoa hartzea— aztertzerakoan, azpimarratzekoa da, besteak beste, kasu gehienetan urte anitzeko egitarazitapena dutela. Aurrekontu-konpromiso horren arabera, Agentziaren ekitaldi jakin baterako kontu publikoak formulatzean, aurreko ekitaldietako administrazio-jardunen arabera hartutako konpromiso ekonomikoak hartu behar dira kontuan, eta, ahal dela, konpromiso horiek bete egin behar dira.</p> <p>2015eko aurrekontu-ekitaldian, lankidetzak-tresnak aurrekontu-zuzkiduren arabera inplementatuko dira.</p> <p>Agentziaren laguntza ekonomikoarekin, ekintzak kudeatzeko eta egitaritzeko kontrola egiten da, eta, kontrol horren oinarritzeko alderdietako bat, lortu nahi diren helburuak lortzeko aurrera eramandako jarduerak “lekuan bertan” kontrolatzean datza. Horregatik, ustez interes handiena duten jarraipen-bisitaldiak egingo dira.</p> <p><b>3.3. PRESTAKUNTZA</b></p>		<p>Asimismo, una vez aprobado el Plan Director Cuatrienal 2014-2017 deberán implementarse las acciones necesarias para su cumplimiento.</p> <p><b>3.2. GESTIÓN DE LOS INSTRUMENTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO</b></p> <p>La cooperación para el desarrollo, cuyo régimen sustantivo tiene su esencia en las previsiones de la Ley 1/2007, de 22 de febrero, se implementa, básicamente, a través de los instrumentos de cooperación previstos y regulados en un conjunto de Decretos. En esencia, sus previsiones establecen los objetivos, los mecanismos y los requisitos que han de cumplir propuestas y proponentes para conseguir las ayudas necesarias para la consecución de una finalidad determinada. La ejecución de los instrumentos se lleva a cabo a través de convocatorias públicas. Sin perjuicio de lo anterior, existe la posibilidad de que la Agencia suscriba convenios, al margen de esas convocatorias, para la consecución de objetivos cuyo alcance no puede lograrse en aplicación de los mecanismos referidos.</p> <p>Un aspecto relevante de esos mecanismos de financiación de la actividad de cooperación —ya sea a través de concesión de subvenciones en procedimientos generales o bien a través de los compromisos adquiridos por la vía convencional— es que su ejecución, en la mayor parte de los supuestos, es de carácter plurianual. Esta fórmula de compromiso presupuestario supone la necesidad de que, al formular las cuentas públicas de la Agencia para un ejercicio en concreto, han de tenerse en cuenta los compromisos económicos adquiridos por actuaciones administrativas de ejercicios precedentes cuya ejecución ha de procurarse.</p> <p>En el ejercicio presupuestario 2015, se van a implementar los instrumentos de cooperación, en función de las dotaciones presupuestarias.</p> <p>Uno de los aspectos básicos del control de la gestión y ejecución de las acciones que cuentan con el apoyo económico de la Agencia es el del control “en terreno” de las actividades llevadas a cabo en relación con los objetivos perseguidos. Por esa razón, se girarán las visitas de seguimiento que se consideren de mayor interés.</p> <p><b>3.3. FORMACIÓN</b></p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Garapenerako lankidetzako politika diseinatzea eta egikaritzea da Agentziaren funtsezko helburua. Politikak eta kudeaketa-sistemak errazago ulertzeko beharrezko baliabide profesionalak lortzea dagokie, batetik, lankidetzak-ekintzen oinarritzko konplexutasunez zuzenean arduratzen diren langileei, eta, bestetik, administrazio-laguntzako eginkizunak betez, edozein ikuspegitik prozeduren izapide burokratikoan presentzia iraunkorra duten langileei.</p> <p>Adierazitako arrazoiak tarteko, eta teknikariei zuzendutako izaera orokorreko prestakuntza-modulu bat inplementatzearen esperientzia bizi ondoren, Agentziak, 2015. urtean, erakundera adskribaturiko langileen prestakuntza behar zehatzen diagnostia eta identifikazioa egiteko asmoa du.</p> <p><b>3.4. GARAPENERAKO LANKIDETZAREKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA ZABALTZEA</b></p> <p>Agentziak aurrera eramandako ekintza eta jardueren artean, asko dira zabalkunde ordenatua, egituratua eta iraunkorra merezi dutenak. Batetik, ez dugu ahaztu behar erakundearen kudeaketa eta lortutako emaitzak Jaurilaritzaren informazio-gardentasuneko politiken esparruan kokatu behar direla. Ezin dugu ahaztu, halaber, zerbitzari publikoek eta herritarrek, oro har, oinarritzko eta funtsezko informazioak eskuratzeko eskubidea dutela, politikariek eta gizarteak agindutako kudeaketa nola egiten ari den kontrolatzeko aukera izan dezaten.</p> <p>Agentziaren zenbait jarduera jendaurrean jarri behar dira egunkari ofizialen bitartez, eta Agentziaren web-orria funtsezkoa da, halaber, helburu hori lortzeko. Diseinu egoki batez, jarduera orokorrari buruzko oinarritzko informazioko eskaera guztiei erantzuna ematen ahaleginduko da web-orria. Garrantzitsutzat jotzen da, halaber, Agentziaren jardun-eremuarekin zuzeneko harremana duten proposamenak, azterlanak, monografiak, aipamenak eta abar paperean zein baliabide digitalen bitartez zabaltzea. Informazio-politika Komunikazio Plan baten bitartez bideratuko da, Agentziaren komunikazio-baliabide guztiak antolatuta eta koordinatuta.</p> <p><b>3.5. AGENTZIAKO GENERO UNITATEAREN FINKATZE PROZESUEI LAGUNTZEA</b></p>		<p>El diseño y ejecución de la política de cooperación para el Desarrollo es el objetivo fundamental de la Agencia. La consecución de los recursos profesionales necesarios para facilitar la comprensión de las políticas y de los sistemas de gestión es predicable tanto de aquel personal que atiende directamente la complejidad esencial de las acciones de cooperación como de aquel personal que, ejerciendo funciones de apoyo administrativo, tiene presencia permanente en el trámite burocrático de los procedimientos, desde cualquier perspectiva.</p> <p>Por las razones expresadas, y tras la experiencia vivida por la implementación de un módulo de formación, de carácter general, dirigida al personal técnico, la Agencia tiene intención de proceder al diagnóstico e identificación de las necesidades específicas de formación del personal adscrito al Ente.</p> <p><b>3.4. DIFUNDIR LA INFORMACIÓN EN TORNO A LA COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO</b></p> <p>Son muchas las acciones y actividades de la Agencia merecedoras de una difusión ordenada, estructurada y permanente. Por un lado no debemos obviar el hecho de que la gestión del Ente y los resultados obtenidos deben enmarcarse en las políticas de transparencia informativa del Gobierno. Tampoco podemos olvidar el derecho de los servidores públicos y de la ciudadanía en general a acceder a informaciones que han de considerarse básicas y elementales para la consecución del pertinente control político y social sobre el qué y el cómo de la gestión que le ha sido encomendada.</p> <p>Sin perjuicio de que algunas de las actividades de la Agencia deban tener reflejo público a través de los diarios oficiales correspondientes, un instrumento fundamental para la consecución de ese logro es la página web de la Agencia que procurará, con un diseño adecuado, dar respuesta a todos los requerimientos de información básica sobre la actividad general. Asimismo, se entiende de importancia relevante la difusión, en papel o por medios digitales, de propuestas, estudios, monografías, reseñas y cualquier tipo que guarden relación directa con el ámbito de actuación de la Agencia. La concreción de la política informativa se plasmará en un Plan de Comunicación que articulará y coordinará la totalidad de los recursos de comunicación de la Agencia.</p> <p><b>3.5. PROPICIAR PROCESOS DE CONSOLIDACIÓN DE LA POLÍTICA DE GÉNERO EN LA AGENCIA</b></p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Garapenerako lankidetzari aplikatutako generopolitiken eremuko langune bat martxan dagoenez, langune horrek Agentziak garatzen duen lankidetzak ekintza osoa diseinatzeko eta kudeatzeko, eta, jakina, baita kontrolatzeko eta ebaluatzeko ere dituen ahalmenak sustatu behar dira.</p> <p><b>3.6. ERAKUNDEEN ETA GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA</b></p> <p>Funtsean, 1/2007 Legeak ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, antolamenduari eta parte-hartzeari dagokionez garapenerako lankidetzari dagokion egitura. Horren arabera, kide anitzeko bi organok osatzen dute egitura hori, eta bakoitzak bere eginkizunak, helburuak eta osaera ditu: Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua; Agentziak bi organo horien jarduerak indartuko ditu.</p> <p>7/2009 dekretuak arautzen duen Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea euskal administrazioen arteko elkarrekiko laguntza, Komunikazio eta informazioarako organoa da, eta lankidetzaren jarduerak egikaritzean estrategiak adosten ditu deialdien bikoiztasunak eta gainjartzeak saihesteko, eta administrazio horien lankidetzaren zereginari koherentzia emateko. Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta euskal udalerrien ordezkariak osatzen dute batzorde hori, EUDEL en eta Euskal Fondoaren bitartez.</p> <p>158/2008 Dekretuak araututako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua lankidetzak-agenteen ordezkari-organoa da, eta garapenerako euskal lankidetzak publikoaren inguruan proposatzeko, ebazteko eta jarraipena egiteko gaitasuna du. Osaera paritarioa du Kontseiluak, eta erakundeek eta gizarte-agenteek ordezkariak dute bertan: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Udalak (EUDEL eta Euskal Fondoak), eta GGKEak. 2015. ekitaldian, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak 2014-2017 Plan Zuzendariak agintzen dituen zenbait lerro zehazteko eta diseinatzeko oso jarduerak garrantzitsuak gauzatu beharko du.</p> <p>Partaidetza instituzionaleko bi organoei dagozkien ekintzak aparte utzi gabe, sektoreko erakundeekiko alde biko harremanak —elkarte-mailakoak zein indibidualak— oso garrantzitsuak direla uste dugu, lankidetzak-politikaren diseinu eta egikaritzapenaren eremuko erabaki jakin batzuk hartzean gizarteratzea ahalbidetzeko.</p> <p><b>3.7. ZERBITZU JURIDIKOA</b></p>		<p>Estando en funcionamiento un espacio de trabajo en el ámbito de las políticas de género aplicadas a la cooperación para el desarrollo, es preciso fomentar sus potencialidades en el ámbito del diseño, en el de la gestión y, por supuesto, en lo que se refiere al control y a la evaluación, desde esa perspectiva, de toda la acción de cooperación que desarrolla la Agencia.</p> <p><b>3.6. PARTICIPACIÓN INSTITUCIONAL Y SOCIAL</b></p> <p>La estructuración organizativa participativa de la cooperación para el desarrollo en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, operada básicamente por la Ley 1/2007, supone la existencia de dos órganos colegiados, con funciones, objetivos y composición diferentes: la Comisión Interinstitucional de Cooperación para el Desarrollo y el Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo, cuyas actividades van a ser potenciadas por la Agencia.</p> <p>La Comisión Interinstitucional de Cooperación para el Desarrollo está regulada por el Decreto 7/2009, es el órgano de información, comunicación y asistencia recíproca entre las distintas administraciones vascas, con el fin de consensuar estrategias en la ejecución de actividades de la cooperación para evitar duplicidades y solapamientos de convocatorias y actuaciones y dotar de coherencia a la labor del conjunto de la cooperación de esas administraciones. Esta comisión está compuesta por representantes del Gobierno Vasco, de las Diputaciones Forales y de los municipios vascos a través de EUDEL y de Euskal Fondoak.</p> <p>El Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo, regulado por el Decreto, 158/2008, es el órgano de representación de los agentes de cooperación, con capacidad de propuesta, dictamen y seguimiento de la cooperación pública vasca para el desarrollo. El Consejo tiene una composición paritaria y en él están representadas, tanto las instituciones como los agentes sociales: Parlamento Vasco, Gobierno Vasco, Diputaciones Forales, Ayuntamientos (EUDEL y Euskal Fondoak), y ONGD. En el ejercicio 2015, el Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo deberá desarrollar una actividad muy importante para diseñar y establecer algunos lineamientos que se prescriben en el Plan Director Cuatrienal 2014-2017.</p> <p>Sin perjuicio de las acciones referidas a ambos órganos de participación institucional, la relación bilateral con las organizaciones del sector —tanto de contenido asociativo como individual— son relevantes en orden a propiciar la socialización de la adopción de determinadas decisiones en el ámbito del diseño y de la ejecución de la política de cooperación.</p> <p><b>3.7. SERVICIO JURÍDICO</b></p>



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Zerbitzu juridikoak Agentziaren legezotasun orokorraren kontrolarekin lotuta dauden jarduerak egikaritzen ditu. Besteak beste, xedapen orokorrei buruzko proiektuak idatzi behar ditu, eskatutako txosten juridikoak eman behar ditu, deialdi-ebazpenen eta haien esleipenaren administrazio-erantzukizuna bete behar du eta eskatutako edozein administrazio-espeditante kudeatu.</p> <p>Agentziaren zerbitzuen egitura-berrantolaketa dagokionez, egokitze baliotsi da Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduen berrikuspene egitea, hain zuzen, atzeman daitezkeen premiek eskatzen duten egokitzapenei egokitzeko.</p> <p><b>3.8. ADMINISTrazioA ETA ZERBITZUAK</b></p> <p>Ekonomiaren, aurrekontuaren eta langileen kudeaketaren erantzukizuna Agentziaren zerbitzuetako bati egokitzen zaio, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera. Erantzukizun hori, zerbitzuaren administrazio-izendapenean zehaztutako kudeaketa-esparruei ez ezik, administrazio-kontratazioari eta baliabide teknikoak abian jartzeari eta mantentzeari ere egokitzen zaie, administrazio-bilakaera normaltasunezkoa izan dadin. Erakundearen barne-antolaketa kudeaketa-premiei egokitzeak eragingo du 2015. urtean Agentziaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua aldatzea egitura-berrantolaketa bat egiteko. Aldaketa horrek nahitaez ekitaldi horretan Lanpostu Zerrenda aldatzea eragingo du, hain zuzen aurretik adierazitakoa egikartzeko. Bi kudeaketa horiei dagokion izapidea alde batera utzi gabe, zerbitzu hau izango da haien buru ikuspegi teknikitik.</p> <p>Lankidetzaren politikaren kudeaketa globala egiteko baliabide teknikoak hornitzeari dagokionez, une honetan dagoen aplikazioa ordeztuko duen beste aplikazio bat diseinatzeke egin beharreko izapideak hasiko dira, betiere Agentziaren premiak beteko dituen tresna bat edukitzeko.</p> <p><b>1. GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO EUSKAL LEGEA GARATZEA</b></p> <p>1.1. Lankidetzaren agenteen erregistroari buruzko Dekretua onartzea.</p> <p>1.2. Lankidetzaren tresnak arautzen dituzten Dekretuak berrikustea egokitzeko xedearekin.</p>	<p>1</p> <p>1</p>	<p>El Servicio Jurídico, ejerce las actividades relacionadas con el control de legalidad general de la Agencia. Entre sus funciones se incluye el trabajo de redacción de los proyectos de disposiciones de carácter general, la emisión de los informes jurídicos que se le soliciten, la responsabilidad del trámite administrativo de las distintas resoluciones de convocatoria y de su adjudicación y la gestión de los cualesquiera expedientes administrativos que la requieran.</p> <p>En lo que se refiere a la reordenación estructural de los servicios de la Agencia, se valora como adecuada una revisión del Reglamento de Organización y Funcionamiento para su adecuación a las adaptaciones requeridas por las necesidades que pudieren constatarse.</p> <p><b>3.8. ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS</b></p> <p>La responsabilidad de la gestión económica, presupuestaria y de personal se adscribe a uno de los servicios de la Agencia, conforme a lo previsto en el Decreto 95/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento. Esta responsabilidad alcanza, además de a los ámbitos de gestión definidos en la titulación administrativa del servicio, a la contratación administrativa y a la puesta en marcha y mantenimiento de los recursos técnicos para que el devenir administrativo pueda desarrollarse con normalidad. La adaptación de la organización interna del Ente a las necesidades de la gestión determina que, a lo largo de 2015, se proceda a una modificación del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Agencia, para procurar una reorganización estructural. Esta modificación organizativa implicará necesariamente que, a lo largo de ese ejercicio, se proceda, asimismo y en ejecución de la anterior, a una modificación de la Relación de Puestos de Trabajo. Sin perjuicio del trámite que haya de otorgarse a ambas gestiones, será este servicio el que las lidere desde la perspectiva técnica.</p> <p>En el ámbito de la dotación de recursos técnicos para la gestión global de la política de cooperación, se iniciarán los trámites pertinentes para el diseño de una aplicación, que sustituya a la que en estos momentos está disponible, con el fin de disponer de una herramienta que dé rendida cuenta a las necesidades de la Agencia.</p> <p><b>1. DESARROLLAR LA LEY VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO</b></p> <p>1.1. Aprobación de un Decreto regulador del Registro de Agentes de Cooperación.</p> <p>1.2. Revisión de los Decretos reguladores de los instrumentos de cooperación para su adecuación.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1.3. 2015rako Garapenerako Lankidetzako Urteko Plana lantzea eta onartzea.	1	1.3. Elaboración y aprobación del Plan anual de Cooperación para el Desarrollo para 2015.
1.4. Ebaluazio Plan Orokorra lantzea eta onartzea.	1	1.4. Elaboración y aprobación de un Plan General de Evaluación.
1.5. Gizarte-eraldaketarako heziketaren estrategiaren prestaketa-fasea.	1	1.5. Fase preparatoria de la estrategia de Educación para la Transformación Social.
1.6. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (hitzarmenak) lankidetzaren zuzena egikaritzeko irizpideak Arztekaritza Kontseiluan lantzea eta onartzea.	1	1.6. Elaboración y aprobación en Consejo Rector de los criterios de ejecución la cooperación directa de la AVCD (Convenios).
1.7. Herrialde Estrategien ebaluazioa.	1	1.7. Evaluación de las Estrategias-País.
1.8. Apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuak arautzen duen Programen tresna ebaluatzea.	1	1.8. Evaluación del instrumento de Programas, regulado por el Decreto 57/2007, de 3 de abril.
1.9. Eusko Jaurlaritzaren eremuan, garapen-politiken koherentzia aurrera egiteko ekintzekin hasia.		1.9. Inicio de acciones para el avance en la coherencia de políticas de desarrollo en el ámbito del Gobierno Vasco.
<b>2. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO TRESNAK KUDEATZEA</b>		<b>2. GESTIÓN DE LOS INSTRUMENTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO</b>
2.1. Garapenerako lankidetzako tresnen deialdia egitea.	7	2.1. Convocatoria de los instrumentos de Cooperación.
2.1.1. Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak arautzen dituen ekintza humanitarioko laguntzen deialdia.	1	2.1.1. Convocatoria de ayudas acción humanitaria reguladas por el Decreto 31/2008, de 19 de febrero.
